

UDAL BRIGADEN EGOERAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abuztuaren 28an, Langileen Batzordeak brigaden lan poltsa formalizatzeko eskaera luzatu zien Giza Baliabideetako zuzendari Maribel Iñiguez eta Juan Ramón Viles zinegotziari. Bertan aipatzen zen hutsik dauden postuak bete gabe daudela eta brigadek bete ditzaketen lanak egiteko kanpoko enpresak kontratatzen direla. Honen atzean zera dago: hiriarri benetako zerbitzu publiko eta eraginkor bat eskaini ordez, garestiagoak diren enpresa pribatuak azpikontratatu direla. Alde batetik, hutsik dauden postuak ez dira betetzen eta, bestetik, estruktural bihurtu diren lan postuak subkontratatu egiten dira.

Hau ikusita, Langileen Batzordeak hiru eskaera zehatz egin zizkion Udal Gobernuari:

- Brigadak gorantz berdimentsionatu eta egitura berrantolatzea, benetako zerbitzu publiko bat eskaintzeko, aldi berean langileen eskubideak errespetatuz.
- Brigadetako LEP bat egitea.
- LEPa egin arte, lan poltsa baten deialdia egitea hutsik dauden postuak betetzen joateko eta estrukturalak diren lanpostu berriak betetzeko.

Urriaren amaieran, Langile Batzordeak aho batez adierazi zion zinegotzi ordezkariari azpikontratatu diren lanpostu batzuk estrukturalak direla eta gestio publiko zuzenaren bidez kudeatu behar direla.

Azaroaren 16an burututako Zerbitzu Orokorren Batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zuen 2016ra arte ezin dela LEPa egin, baina ez zuen Udal Brigaden lan egoerari aurre egiteko inongo neurri zehatzen berri eman. Horregatik behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari azterketa bat egin dezan brigaden egitura berregiteko eta zerbitzuan hobekuntzak egin daitezen, langileen eskubideak eta kalitatezko zerbitzu publiko bat bermatzeko helburuarekin.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari LEP bat egiteko orduan lehentasuna eman diezaiola Udal Brigadei.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Olaia Duarte Lopez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia